

Goierri tarra

295. zenbakia 2006ko otsailak 19



Antonio Olariaga
**100 URTE
SASOIKO**



*Zatoz martxoaren 12an Gabiriako
VIII. Rallysprinta ikustera !*

KORTA

*Menu bereziak
Eguneroko menua
Karta
Mariskadak, haztegi propioak*

ERRETEGIA

☎ 943 88 71 86

MARISKERIA

GABIRIA



BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BERÓGAR



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307




Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal

ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:3204

BERTSOTAN

Inauteriak



Aitor Sarriegi

Beste behin ere ohartzeko
berriro badatozela
gainean dugu inauterien
festa ta buila itzela
Animatuko gara
goazen, ba, Tolosara
tokatzen zaigun bezela
gure beldurrak ta konplexuak
aireratu daitezela!

Irudimena ea kalean
nagusi izan daiteken
eta ez garen portatzen sarri
ohizko dugun bezain zeken
Ea ausartzen garen
eta saiatzearen
bidea ez bedi eten
eguneroko mozorropetik
geu garenera irteten

Doinua: Iparragirre abila dela

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 643

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Azaleko argazkia: Arkaitz
Apalategi.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Jon Ordoñez
5. **Ingurugiro txokoa:** Aire zikina
Goierrin
6. **Aholkua:** Garapen psikomotorea,
eskuak
7. **Kate motzean:** Iñaki Azurmendi
8. **Erreportajea:** Antonio Olariagak
100 urte
11. **Erreportajea:** Bai eskolak
euskalduntzeari! kanpaina
14. **Elkarrizketa:** Agustin Vaquero
pintorea
18. **Garai batean...:** Inauteriak Lazka-
on
20. **Gazteleku:** Xabier Araña idazlea.
23. **Agenda.**
24. **Debaldeko iragarkiak.**
26. **Argazki zaharra.**



8



14



16

Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro

Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta
Zeraingo udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jon Ordoñez

*Belar
artifizialaren
mantenimendu
a merkeagoa
dela garbi
dago, eta
erabakia
horregatik
bartu dutela.
Baina egokia al
da? Errugbi
jokalaria askok
ezetz diote*

Nahikoa al da?

Nabaria da azken hilabeteetan errugbiak Gipuzkoan duen susperraldia. Inoiz ez bezala zeresana ematen ari da. Gipuzkoako lehengo egunkari batek eta sortu berri den beste batek elkarren arten duten lehiak ere mesede egin dio, errugbizaleek ere erosten baitituzte periodikoak. Errugbia sasoi onean dago Gipuzkoan: Ordizia eta Bera Bera Espainiako Ohorezko Mailan jokatzeko ari dira, eta Miarritzeko Olympique (mugatik gertu dago Europako talde onenetako bat) bigarren aldiz ari da Heinecken Kopako (Europako Txapelketa) partida bat Donostiara eramateko lanean.

Maiz gertatzen da urrutiko intxaur handiari gertuko intxaur txikiari baino arreta gehiago eskaintzea. Antxon Masse errugbi adituak Noticias de Gipuzkoa egunkarian esan zuen aurreko astean: Gipuzkoar askok izango dute berriro aste gutxi barru Miarritzeren berri, baina Ordiziaz eta Bera Beraz inoiz ezer entzun ez dutela jarraituko dute. Massek zioen polita litzatekeela Anoeta estadioa Bera Bera eta Ordiziaren arteko derbi batean betetzea. Polita bezain pentsaezina da momentu honetan, ordea.

Ordizia Rugby Elkartea (ORE), lehen esan bezala, ez da errugbiaren susperralditik kanpo geratu (Ordiziak azken urteetan izan duen gorakada gabe, Gipuzkoan egon den susperraldia soilik mediatikoa litzateke). Fernando Trevijano errugbi zelaian lehen taldearen partidetan egoten den giroa polita eta erreala da, Donostiara joan beharrik gabe. Ordiziarrak, beasaindarrak, zaldibitarrak, lazkaotarrak eta Goierriko beste herri gehiagoko eta kanpoko zaleak hurbitzen dira partidak ikustera. Eskualdeko errugbi klub bakarra den heinean, eskualdeko kluba da ORE.

Izen aldaketa?

Orain dela egun batzuk, OREren web orriaren eztabaidagunean ondorengo proposamena bota zuen zale batek: zergatik ez aldatu izena, eta eskualdean duen babesa baliatzeko, Goierri osoa ordezkatzeko duen izena jarri? Sentimendua alde batera utzita, baliabideetan irabaziko luke elkar-teak: herri gehiago, laguntza gehiago. Orain dela hilabete gutxi lehen taldeak Kitmar Ordizia izena hartu du, eta klubaren inguruan daudenak ondo dakite zenbateko garrantzia duten horrelako babesleek (eta inguruan ez daudenak pentsa dezakete).

Baina diruaz gain, akaso, izen aldaketarekin klubaren inguruko erabakiak harterakoan kontsentsu gehiago ere lortu ahal izango zuen OREk. Buru batek baino hobe, bi buruk pentsatzen omen dute. Ordiziako udalak egin du jada futbolera-ko belar artifizialeko zelaia. Puri-purian dago orain errugbi zelaiarena. Fernando Trevijano zelaia CAF-en lurretan dagoenez, Ordiziako Udalak Altamirako estadioaren aldameneko zelaira eraman nahi du errugbia, belar artifizialeko zelaira. Bartzelonatik datorren jokalaria baten harridura aurpegia ikustekoa izango da, oin-ak belar artifizialeko zelaian edukita, begiak Aralarreko eta gure mendietako belardietan dituenean. Belar artifizialaren mantenimendua merkeagoa dela garbi dago, eta erabakia horregatik hartu dutela. Baina egokia al da? Errugbi jokalaria askok ezetz diote.

Belar artifiziala

Teknologiak asko egin du aurrera, beti bezala, etengabe. Baita belar teknologiak ere. Baina Urnietako belar artifizialetako zelaietan goizeko bederatzietan, neguan, futboleko jokatzeko duenak badaki zer duen lurrera erori ezker. Egia da errugbia Ordizian ez dela jokatzeko goizeko 9etan, baina Fernando Trevijano zelaira neguan gerturatu direnek badakite eguerdian ere ez dela giro epelik izan. Eta, aurrerapenak aurrerapen, futbola eta errugbia zein ezberdinak diren agerian dago. Batean oinarekin jokatzeko da eta bestean, eskuarekin. Batean, zutik; bestean, zutik eta lurrean. Nori bururatuko litzaioko belar artifizialeko golf zelai bat egitea?

Udalen laguntza

Zer egin dute Beasainek eta Lazkaok OREren alde, izen aldaketa merezi izateko? Hausnarketa hor amaitzen ez den arren, arrazoirik ez du falta hori galdetuz eztabaidagunean proposamenari erantzun zionak. Kitmarrek egin duen moduan, Goierriko herriek ere proposatu zezaketen kluba diruz laguntzearen truke, lehen taldearen izena aldatzea. Sikiera, ikuspuntu ekonomiko batetik eskualdean turismoa bultzatzeko. Baina horrekin batera beste galdera bat etorri zait burura: joko belar artifizialeko zelai batera eramanda, nahikoa egiten al du Ordiziako Udalak bere herriaren izena Espainiako maila go-renetako batean lau haizetara zabaltzen duen taldearen alde?

Aire zikina Goierrin

Gure inguruko jende gehienak denok primeran bizi garela uste du. Bizitzako alor askotan ongizate maila ona lortu dugun arren, benetako bizi-kalitatearen oinarritzko euskarri diren natur-baliabideak egoera askarrean dauzkagu. Ondoren saiaturko naiz baiezpen honen arrazoiak aurkezten.

Beasaingo matadorea edo hiltegia egon zen tokian, Agauntzak Oriarekin bat egiten duen gunean, Eusko Jaurlaritzak aire-kalitatea neurtzeko Goierrin duen instalazio bakarra dago. Horren datuen arabera, urtean egun askotan, guk arnasten dugun airean, PM10 izeneko partikula kontzentrazioak legediak jarritako muga gainditzen du. Denboran atzera asko egin gabe, hau idazten ari naizen aurreko asteko urtarilaren 30 eta 31n bezala otsailaren 2 eta 3an neurritz gainetik egon da eta ez dut uste oso oker egongo naizenik zera esaten badut, antzeko egoera egongo dela inguruko herrietan ere.

Eta zer dira PM10 partikulak? Airean esekiduran dauden partikula solido edo likidoak dira, ur-lurruna izan ezik, jalkitze-abiadura txikia dutenak eta atmosferan nahiko denbora luzean irauten dutenak. Partikula hauek 10 mikra baino diametro txikiagoa dute, mikra bat milimetroa baino mila aldiz txikiagoko unitatea delarik.

Partikula hauen izaerari erreparatzen badiogu, honako mota hauek aurki ditzakegu, besteak beste, ibilgailuen ihes-tututik botatako erregabeko eta gaizki erretako erregaiak (kedarra); trafikoak eragindako galtzadaren higaduraren zatikiak; pinturak, tintak, lakak eta esmalteak; disolbatzaileak eta deskoipeztatzailak; beruna bezalako metal astunak; siderurgiak sortutako hautsa; harrobiko hautsa; eraikuntzak eragindako hautsa eta abar luze bat. Dena den, partikula hauen jatorriaren erudun nagusia trafikoa da gure inguruan.

Aireratutako partikula salda hau egun haizetsuetan sakabanatu egiten da, baina haizerik gabeko zenbait egunetan bailara hondoko airea ez da mugitzen eta horren azpian sortutako poluitzaileen-koktelak bertan dirau. Eta ez dugu ahaztu behar aipatutako partikula horietaz gain giza-jarduerak eragindako beste poluitzaile oso kaltegarri batzuk ere botatzen ditugula airera, nahiz eta hauen mailek muga legalak ez gainditu. Horien artean daude nitrogeno, sufre eta karbono oxidoak eta behe geruzako ozonoa.

PM10 partikulen ondorioak ikaragarriak dira osasunarentzat. Egiaztatuta dago aspalditik poluitzaile mota honek birika eta bihotzeko gaixotasun oso larriekin erlazioa duela, hala no-

la ateroklerosia eta infarto arriskua sortarazten du, arnas-bideetako gaitzak dituztenen egoera asko txartzen du, eta asmak, bronkitisak eta infartoak eragindako hospitalizazio eta heriotz goiztiarrak eragiten ditu. Europako Batzordeak dioenez Espainian 16.000 pertsona hiltzen dira urtean aire kutsaduraren ondorioz eta kutsadura horren eragile nagusia trafikoa da.

Bainan poluzioaren ondorioak ez dira bakarrik gizakiongan agertzen; gurekin batera bizi diren beste milaka eta milaka izaki bizidun espeziengan, landare nahiz animalian, ere kalteak sortzen ditu.

Legez jarrita dagoen baliu muga poluitzaileentzat urtez urte jaisten ari da. Legala dena ez da beti bidezkoa. Horregatik, nahiz eta Beasaingo neurgailuaren emaitzetan legeak jarritako mugaren azpitik egon zenbait poluitzaile, horrek ez du esan nahi poluitzaile horiek ez dutenik eraginik gure eta beste espezieen osasunarengan. Behar bada hemendik urte gutxi barru jaikingo da gaur indarrean dagoen legediak onartutako mailak onartezinak direla. Ezin gara konformatu legeak agindutakoa betetzearekin bakarrik. Harantzago joan behar dugu, axolagabekeria baztertu behar dugu denok, eta poluitzaileen ekoizpena eragozteko ahalagin guztiak egiten hasi gaur bertan, biharko utzi gabe. Instituzioei dagokie ahalegin honetan buruzagitzia, giza-eragile eta norbanokooi gure esku dagoen guztia egitea.

Joxan Auzmendi

JAKIN BEHARREKOAK

Sarobe baserrira (Anoeta), bisitaldia. Produktore ekologikoa: behiak, esnea eta barazkiak. Martxoak 4 larunbata, goizeko 9,30etan, Goierriko Baratzta dendatik, Ordiziatik. Izena ematea beharrezkoa telefonoz (943087498) edo dendan bertan.

Kads, 4x4 ibilgailuak eta mendiko motorrak Goierriko mendietan:

bai Ataunen, Idiazabalaren Ezkio-Itsasoko mendietan horrelako ibilgailuek egindako triskantzak begi bistan daude, lurzoruan sortutako higadura hain zuzen. Hauek sortarazten dituzten kalteak nork ordaintzen ditu? Eta zein da egoera legala horiek ordenatzeko, zentzuz joko dezaten?, Inork babesten al du bertan bizi direnen interesa eta beharra, baserrietako bide eta mendi pistak?

Bizikletak trenetan. Europako Parlamentuaren ebazpen batek, bizikletak trenetan eramateko baimena ematera animatu ditu tren konpainiak, baita nazioarteko bidaietan ere.

INTERNET

www.ingurumena.net. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren web orria. Bertan Airearen kalitateari buruzko eguneroko datuak topa daitezke, baita Goierrikoak ere. Horretarako "EAEko airearen kalitateari buruzko informazioa" atala sakatu behar da.

"Airean esekitako partikula hauen ondorioak ikaragarriak dira osasunarentzat"



Landarlan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Gizakia eta teknikan Oswald Spengler-ek dio gizakia iritsi den mailara iritsi bada bere eskuei esker izan dela.

Gizakiaren zerebroa hain modu harrigarrian gure arbasoen eskuen trebetasunari esker garatu ote zen ala alderantziz gertatu ote zen? Garbi dagoena hau da: gizakiaren zerebroa eta eskuak lotzen dituen nerbio sarea ikusgarria dela. Ikusmena eta eskuen arteko koordinazioak, beraz, izugarriko garrantzia du garapen psikomotorean. Koordinazio hau adimenaren garapenean funtsezkoa da.

Lehen zortzi astetan

Hasieran gure haurrak ia ezer ez du egingo eskuekin eta itxita edukiko ditu.

Bigarren hilabetean

Eskuak lasaitu eta ireki egingo ditu. Haurrak etengabe aztertuko ditu, ahoratu egingo ditu eta gauzak hartzeko lehen saiakerak egingo ditu.

Une aproposa benetako jostailu eder bat haurrari emateko: txintxirrina (sonajero). Bere hots, itxura eta koloreengatik, estimulo iturri agortezina izango da une honetatik aurrera. Hartu, utzi, mugitu, miazkatu, hotsa atera, ... Txintxirrin des-

berdinak eskainiko dizkiogu haurra asper ez dadin.

Gure haurrak zerbait hartu nahi duenean, erronka berri bati egin behar dio aurre: distantziak kalkulatzeko ikasi behar du.

Lauzabost hilabete dituenean

Ohartuko gara, bere esku eta besoen nolabaiteko kontrola baduela. Sei hilabeterekin gutxi gorabehera ez usteko berri bat emango digu: gauza bat esku batekin (ala biekin) hartzeko gai dela. Tresna hori lau behatzen eta esku-ahurraren artean edukiko du. Bi gauza batera hartzeko gaitasunik ez du oraindik eta eskuan duena uztea ere kostatu egingo zaio. Eskuetan duena ahora eramango du. Eskuak, ikusmenak eta ahoak tresna desberdinei buruz informazioa ugari emango dizkiote eta zerebroak etengabe prozesatu egingo du.

Zortzi bat hilabete dituenean

Eskuetan tresna bat badu eta guk eskatzen badiogu, ematen saiatuko da. Ziurrenik ez du asmatuko: ez du uzten jakingo. Nolanahi ere trukaketak egiten hasi ahal izango dugu. Behatz lodia martxan hasten da. Eskueta-ko bat nagusitzen hasi da



Beasaingo Andramendi Ikastolako haurtzaindegia
www.andramendi.com



judanik (halere oraindik goizegi da ezkerre ala eskuina den esateko).

Adin honetan haurrek asko disfrutatzen dute tresnak kaxatan sartuz, ondoren irauli, dena sakabanatu eta berriro kaxatan sartuz. Kuboak pilatuz, dorreak egingo ditu eta gozamen handiz bota egingo ditu. Piezak bata bestearen barruan sartzea ere asko gustatuko zaio eta lan honek trebetasun maila handia eskatuko dio.

Haur bat, gauzak nahi bezala hartu eta utz ditzakeela ohartzen denean, etengabe jolas horretan hasten da, hartu bota, berriro hartu eta berriro bota.

Arte lanaren hastapenak

Bigarren urtebetetzea baino lehen, has gaitetzeko gure haurrarekin zenbait lan egingen. Errazenetik hasiko gara. Ura eta hondarra eskainiko dizkiogu bere lehen esperientziak egin ditzan. Bi urterekin buztina emango diogu eta hirurekin plastilina. Bere lan horiek merezi bezala gorai patuko ditugu eta leku esanguratsuak ipiniko ditugu gure adiskideei erakusteko. Koloretako arkatzak hiru urterekin eskainiko dizkiogu. Gure artista txikiak ondo pasatzeaz gain, bere adierazpena eta espresibitatea azalduko ditu eskuen trebetasuna lantzen ari den bitartean.

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela
Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro
kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza, 7 behea, Beasain

Izen-abizenak:

.....

Helbidea:

.....


Herria:.....

Tfnoa:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia (20 digitu):

.....



“Momentuz lau hilabeteko erabakia izan da, baina baliteke behin-betikoa izatea”

Aizkora uztea, behin-betiko erabakia izan al da?

Momentuz behintzat, lau bat hilabeterako erabakia izan da. Dena den, baliteke behin-betikoa izatea.

Zerk eragin al du erabakian?

Batez ere nekeak. Erabakia aspalditxotik hartutakoa da. Harategiko lana dela eta denera iritsi ezinda nembilen. Kartzelan dagoen anaia bisitatzeko denborarik ere ez dut. Inguruan daukadan jendeari ezin izan diot erantzun azken aldian. Adibidez, iaz 8 igande bakarrik izan nituen libre.

Lehiaketaren batean edo bestean haserre samar ere ibili zara. Horrek izan al du eraginik erabakia hartze-ko garaian?

Leku askotan egoten da pertsonaia xebreren bat. Baina ez da egun bateko erabakia izan. Egia esanda askotan jendeak ez du laguntzen, hori egia da. Gauza askok amorrua ematen du baina erabakian ez du horrek eraginik eduki.

Aizkoraren etorkizuna zinela, edo zarela, esan izan da askotan...

Egia esan beste aukera handirik ez dago.

Etorkizunik gabe gelditu al da aizkora?

Ez, etorriko dira berriak. Gazteak hor dabilta. Kantitatea badago, baina kalitatea da kontua. Nik uste aizkorako lanak aldatzen joan beharko duela. Adibidez, orain Euskal Herriko txapelketako finalean egiten den lana egiteko aizkolari gutxi dago.

Lanak biguntzea al da irtenbideetariko bat?

Euskal Herriko txapelketakoa adibidez bai. Pena izango da, beti egin den lan bat delako. Baina momentu honetan pentsatzen hastekoa izango da maila jaisten joango baita. Kanaerdikoak edozeinek ebakitzen ditu baina oinbikoak eta sartzen direnean, beste aizkolari mota bat behar da. Nik uste denbora asko baino lehen, hortik joango direla.

Gazteak badatoz, baina nekez.

Gazteak ateratzea zaila da. Kirol garestia da. Jendeak ere ez du lehen adina sufritzen.

Bidea zuk zerorrek egin behar izan duzu.

Bai, nik egin dut bidea, beste batzuk, abizenagatik errazagoa izan dute, nahiz eta gutxiago egin duten. Norberak egindako bidea izateak ere badu meritua.

Aizkorak etorkizun beltza al dauka?

Aizkorak, eta orokorrean, herri-kirolak. Batzuk ari dira saiatzen, Xiba hor dago. Baina laguntzarik ez badago Diputazioetik edo Jaurlaritzatik, zaila izango da. Denbora asko behar da entrenatzeko eta dirurik ez badago... Hasi berriren, aurrera ateratzeko asko gastatu behar da. Gero erakustaldietan eta ateratzen da baina hasieran asko gastatu behar da. Ia hiltorian dagoenean orduan hasiko da beste norbait.

Aizkolari lagunek ezustean hartu al dute erabakia?

Ez. Ingurukoek, Arrospidek, Ugarteburuk, Larretxeak... bazekiten. Iaz Estatu Batuetan egon ginenean, Larretxeari esan nion Euskadiko txapelketa jokaturakoan utzi egingo nuela. Baina ez zuen sinisten. Honaino iritsita, maila honetan ni bakarrik egonda, ea nola utzi dudana galdetzen didate. Baina aizkolari askok 8 orduan lan egiten dute asteleheneetik ostiralera eta denerako denbora izaten dute. Baina nik harategian larunbat goizetan ere lana egin beharra daukat. Ezertarako astirik gabe gelditzen naiz. Nire ustez, ez zuten sinisten utziko nuenik.

Martxoaren 12an dena den, badaukazu saio bat.

Bai, Ataunen. Aierbe, Repo eta Zeberioaren omenezko saioan parte hartuko dut. Saio handia ari dira prestatzen.

Zer eman dizu aizkorak?

Denetik. Satisfazioak izaten dira, egun eta momentu polito on asko eman dizkit.

Eta kendu?

Astia makina bat bai. Parrandak ere bai. Entrenatzeko asti asko behar da, ikasteko ere bai.

Etsiko al duzu?

Hori ez dakit.



Antonio Olariaga, mende bete bizkarrean

*"Norberaren burua ondo
zaintzea da sekretua"*

Apirilaren 8an 100 urte betetze-koa da Antonio Olariaga. Umoretsu hartu gaitu zaldibiar-gabiriarrak, patxadan, butakan eserita. Mende bete gainean badu ere, sasoiko

dago Antonio, buruz argi. Bere bizitzaren errepasoa egitearekin batera, XX. mendeari ere gainbegiratu egin diogu. Bide batez, hainbeste urtean ondo bizitzeko sekretuak kontatu dizkigu.

IÑAKI ARIN

Aseguruak




☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

IBAI ONDO



AROSZTEGIA

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurria

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Astea, Hernanin pasatzen du, alaba zaharrenaren, Inaxiren etxean, duela ia 20 urtetik. Hori bai, asteburuetan, hutsik egin gabe, Gabirira, Zantagoiti baserri maitera itzultzen da.

Zantagoiti baserrian osatu zuen bere familia, Fortunataren ondoan. 39 urte zituen Antoniok ezkondu zenean, Fortunatak 29. 12 seme-alaba izan zituzten. Bi txikitan hiltzen ziren. Beraz, Antonio dioen bezala, “bost pare hazi ditugu”.

Artzaina

Artzainen semea da Antonio. Lau anai-arreba izan ziren. Aita, Zaldibiakoa, Saturdi auzoko Urtsutxiki baserrikoa, eta ama Bizkaikoa, Fruniz herrikoa. Antonio bera, Frunizen jaio zen. “Fruniz, egurrik etzan lekuan, han izango zan burniz. Loremika etxean jaio nintzen. Mikak lo egingo zuten han. Orain, ni non eta nola jaio nintzen, ez dakit. Gero joan eta ikusita dakit”.

Bizkaitik Zaldibiara itzuli ziren Antoniok 3 urte zituela. Hasieran Urtsutxiki baserrian jarri ziren bizitzeko, baina handik kalera jaitsi ziren.

Ezkondu artean artzain ibili zen. Uda Aralarren pasatzen zuen, “San Prudentzio inguruan igotzen ginen mendira, Aralarra”. Negua, “ahal zen lekuan pasatzen zen. Lehenengo Bizkaira joaten ginen, baina gerran itxi egin ziren ateak eta Gabirian gelditzen hasi ginen”. Han ezagutu zuen Fortunata. “Huraxe fortunatu zen nirekin!”, dio.

Ezkioko Ama Birjinaren garaian bertsolaria nintzen. Nahikoa ardoa edanda berotu eta bertsotan egiten genuen.

“Ezkondu nintzenean alde egin nuen Zaldibiatik, ardiak salduta. Fortunatak ez zuen nahi bakarrak artaldeari kaso egitea eta ardiak saldu nituen. Eta andrea erosi nuen. Horrela joan nintzen Gabiriara. Baina beti ardiak bururatzen zitzaizkidan. Ezin burutik kendu. Emazteari esaten nion, baina ezetz esaten zidan”.

Artzain bizimodua gogorra ote zen galdetuta zera erantzun digu Antoniok: “gustatu egin behar”.

Ezkontza

Soldaduskatik (Afrikan egin zuen) etorritakoan hasi zen Fortunatarekin. Gabirian bertan ezkondu ziren, goizeko 11etan. Antonioren anaiak, fraileak, ezkondu zituen. “Andrea erosi nuen, 13 duroan”, dio umoretsu Antoniok.

Bazkaria Gabirian egin zuten, Txokoan. Zer jan zuten ez da oso ondo gogoratzen, “ez dakit, garbantzuak eta ardikia edo”.

Ezkon-bidaian, Bizkaira joan ziren. Fruniza, Bilbora klausuran zegoen moja arreba ikustera...

Emaztea aspaldi samar hil zitzaion Antoniori. “Zeruan dago emaztea. Zerua esaten da baina lehenengo zorua dago. Airean ez dago ezer. Hor dabilta baina behera jaisten dira. Haizea besterik ez dago”.

Aurrerapen teknologikoak

Gaur egun telebistarekin asko entretenitzen da Antonio. Batez ere, pelota eta politika jarraitzen ditu. Bai-



Apirilaren 8an jaio zinen beraz, 1906. urtean.

Han nintzen baina ez naiz gogoratzen. Hala dago jarrita.

Ondo kontserbatzen zara. Ondo zaintzen zaituzte.

Bai zera, ni zaindu behar. Norbera zaindu behar da bestela jai dago.

100 urtean bizitzeko sekretua zein da?

Norberaren burua ondo zaintzea.

na ondo gogoan du Antonio, Zaldibian lehenengo irrati antena jarri zutenekoa. “84 urte izango dira Zaldibian lehenengo antena jarri zutela. Amerikako kontuak aitzen zituztela esaten ziguten. Ixilik egon zaitez! Esaten genien. Guk ez genien sinisten. Orain zer eta aparato txiki batekin hango kontuak entzuten dira. Adelantando handia da eh!”. Telefono mugikorraz ari da Antonio. Venezuelan bizi den semearekin telefonoz hitz egiten du eta.

XX. mendeko gertakizun ugari bizi izan ditu An-

toniok. Teknologiaren garapenaz gain, hainbat gertaera historikotan ere parte izan da. Antoniorekin bi aipatu ditugu: Ezkio-Itsasoko Ama Birjinaren agerpena eta 1936ko gerra.

Ama Birjinaren agerpena

1931ko ekainaren 30ean azaldu omen zen Ama Birjina Ezkio-Itsason. Antonio bera behin baino gehiagotan joan zen Ama Birjina ikusiko ote zuen, baina alperrik. “Gauetz izaten ziren errezoak eta komeriak, afalondoan joan behar zen eta 12ak edo ordu bata aldera

arte jendea han egoten zen. Hantxe dago! esaten zuen norbaitek eta gu korrika joaten ginen, baina ez genuen ezer ikusi”.

Ama-Birjinaren agerpenaren bueltan, “Ezkion ikaragarritako jende piloia juntatzen zen milagroa zela eta. Inork ez zuen milagrorik ikusi. Nik bai, nik ikusi nuen: hainbeste jende bildu eta ezeren aberiarik gabe denak herritik irten. Milagroa hori zen bat! Hainbeste jende inongo ordenarik gabe, soroetan sartuta, inork txarkeriarik gabe, gauez, iluntasunean hala erretiratzea. Neska asko jarri ziren famili izateko. Lehen ere hala izaten zen”.

Ondo gogoan du Antoniok, Ezkio-Itsason esaten zenaz. “Gerra, rebozazioa zetorrela esaten zen, azkar gainera. Anai batek beste anaia hilko zuela, aita ere bai... Ezin sinistu egoten ginen. Baina hori asmatu zuten. Nonbaitetik asmatu zuten. Norbaitek asmatu zuen. Esaten zuten, errezoak bakarrik salbatuko zuela heriotzetik, alperrik ibiliko zirela hara eta hona joan. Beraz, zerbait izan zen. Zer zen, nik ez dakit”.

Ama Birjinaren aitzakian parranda bat baino gehiago egindakoa da Antonio. Uda partean lasaixeago ibiltzen ziren ardikien eta gauetan Ezkio aldera joaten zen. “Ezkioko Ama Birjinaren garaian bertsolaria nintzen. Ardoa nahikoa edanda berotzen ginen eta bertsoan egiten genuen. Hilabete batean, egunero joaten nintzen”.

Bertsolari sena oraindik ere barne-barnean darama Antoniok. Santa Ageda bezperan koplaren bat bota zuen, Murua eta Igartzabalekin. “Bota beharra zegoen alde egingo bazuten!”.

1936ko gerra

Ezkion egindako iragarpenak egi bihurtu ziren.



Argazkian, familia bereko lau belaunaldi. Aspaldiko partez, 10 seme-alabak eta beraien omdorengoak mabaiaren bueltan elkartzeoak dira, 100. urteurrena ospatzeko.

1936an Espainiako gerra zibila izan piztu baitzen. Antoniok 30 urte zituen gerra hasi zenean. “Nire kintoko gehienak eraman egin zituzten eta azkeneko boladan joateko esaten zidaten gurasoek. Beasaingo komandantzian egongo nintzelakoan presentatu nintzen. Baina handik Saturrarena eraman ninduten. Han hilabete egin genuen. Handik Bergarara. Guardia egitea tokatzen zitzaidan bate-

an, pixka bat entretenitu naiz, sarjentoa etorri eta ni falta. Arrestatuta nengoela esan zidan lagun batek. Ni harrituta. Arrestatuta! Galdetu nion. Buruzagia etorri eta hi ez hintzen hemen. Lagunei galdetu eta inork ez zekian ezer eta deserto-retzat eman dik harek. Beragana presentatu eta Irungo kartzelara eraman ninduten. Gabiriarr bat zegoen buru. Kontatu, eta lasai egoteko esan zidan. Sukal-

daria ere Billabonakoa edo ingurukoa zen. Gorri hutsa. Denei jana ematen zien. Hori bai, patatak zuritzen denok jartzen gintuen”.

Gerra bukatutakoan, “gosea, ezin ase” izan zuten. “Guri rasionamendua kendu egin ziguten, gorriak ginelako. Ogi eder askoa partitzen zen baina guri batez. Ni jaiotzez gorria jaiotzen eta harrezkero gorria naiz”.

Pakea

Antioniok gaineratu duenez, gerraren ondotik, “harrezkero sesioan bizi izan gara. Ezin pakea lortu. Orain pakea gora, pakea behera... nik egunero Aita Gurea bat errezatzen dut pakea egiteagatik”.

Otoitz egitearekin batera, Antoniok ere badu pakea lortzeko errezeta: “Pakea izango bada elkartu egin behar gara. Orain ez garela bi eratara jarri esaten dute. Ezker-eskubiak biak. Nik ere ezker eta eskubia dauzkate eta biekin manejatzen naiz, biak elkar hartzen dutenean”.

Eguneroko basoerdia

100 urtera iristeko, norberaren burua ondo zaintzea da Antonio Olariagaren sekretua. Ondo zaintze horretan sartzen dira, egunero, basoerdi bat ardo eta paseotxo.

Gaur egun ez da erretzailea, baina soldaduska garaian bai. “Soldaduskara Afrikara joan nintzen eta zigarro razioa ematen ziguten, hamabostean behin. Bat edo beste saltzen nuen, baina erretzen intentatzen hasi nintzen. Guardian nengoen garaian, zigarro bat erretzen nuen. Guardian ez zegoen erretzerik”.

Soldaduska bukatutakoan ere jarraitu zuen erretzen. “Jaietan, tabernan elkartzen ginen. Ardoa edan eta zigarroa erretzen genuen. Astelehenen izugarritzko astelehen izaten nuen. Zigarroa erretzeari utzi nion, hark egiten zidan kaltea. Lagunei medikuak aginduta utzi nuela esaten nien. Orain tabakoaren kearekin kejatu egiten naiz. Ezin naiz tabernetara joan”.



Sinadura bilketa erraldoia

Bai eskolak euskalduntzeari! kanpaina

Irakaskuntzan hizkuntza eredu aldaketa eskatzearekin batera, gizarte osoa euskararen erabileraz kontzientziatzea da 'Bai Eskolak Euskalduntzeari' kanpainaren helburua. Hausnarketa sortarazi nahi dute gizar-tean. Kanpainaren oinarria, sinadura bilketa erraldoia izango da. Euskal He-

rrian 100.000 sinadura bildu nahi dira. Goierri, 1.500 sinadura biltzea dagozkie. Erronka horri begira, taldeak sortzen ari dira Goierriko herriko ezberdinetan. Nerea Martinezek (Euskal Herriak Bere Eskola) eta Ugaitz Garmendiak (Euskal Herrian Euskaraz) eman dizkigute xehetasunak.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- Inmueble agentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

zuhaitzki
S A
Zurgindegia

Egurrezko lehiok, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurira.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Eskolak Euskaldundu ekimenak sustatzen duen 'Bai eskolak euskalduntzeari' kanpainak beste erakunde batzuen babesa jaso du: Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Oinarriak, Topagunea, Aek, Ika, Ehe, Ueu, Ika, Lab, Euskal Irratiak, Sortzen Ikasbatuaz, Euskal Herriak Bere Eskola, Partaide eta Ikasle Abertzaleak.

Emandako datuen arabera, "gaur egun Euskal Herrian diren hizkuntza eredu bitartez milaka haur eta gazteren hizkuntza eskubideak urratzen dira. Batetik, ikasleen gehiengo zabalari euskara ezagutzeko eskubidea urratzen zaio; bestetik, Euskal Herriko hainbat eremutan (berezi, baina ez bakarrik, Nafarroa Garaian eta Lapurdi, Behe Nafarroan eta Zuberoan) euskaraz ikasteko eskubidea bera ere ukatzen zaie", azpimarratu dute.

Zenbakiak ere eman dituzte: "eskolak hiru ikasle bi ez ditu euskalduntzen: A ereduko ikasle guztiak, B ereduko ikasleetatik %67a eta D ereduko ikasleetatik %32a ez lirateke euskaldunduko. Portzentaje hauek ondorioztatzeko Eusko Jaurlaritzak pasa den urtean egindako azterketaren emaitzak erabili dira. Egoera honek euskararen normalizazioa guztiz tratatzen du eta gure hizkuntzaren geroa bera ere zalantzan jartzen du", adierazi dute.

Guztia salatzeke eta aldatetako eskatzeko, Euskal Herri osoan sinadura bilketa erraldoia egiten ari dira. Maiatzaren 28an amaituko da sinadura emateko aukera.

BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!

Sinadura bilketa
Recogida de firmas. Recueil de signatures

SUSTATZAILEA: ESKOLAK EUSKALDUNDU EKIMENA
BABESLEAK:

Logos: OINARRIAK, IKA, NEH, LAB, etc.

Goierriin 1.500 sinadura

Euskal Herria osoan 100.000 sinadura biltzea du helburua 'Bai Eskolak Euskalduntzeari' kanpainak. Goierriin, 1.500 biltzea da erronka. 15 urtetik gorako edonork dauka aukera sinatzeko. Maiatzaren 28an amaituko da kanpaina.

Ikastetxeetan egongo da sinatzeko aukera eta horrekin batera, herrietan ere mahaiak jarriko dira. Guztia aurrera eramateko, herrietan taldeak sortuko dira euskararen inguruko eragile ezberdinen artean.

Ugaitz Garmendiak eta Nerea Martinezek adierazi digutenez, "sinadura guztiakin Administrazioa joan behar dugu. Sinadura horiek, batetik hausnarketa soziala izan behar dute, eta bestetik baliabideak jartzeko eskakizun bat".

Goierriin, erabilpena arazo

Euskal Herriko lurralde batetik bestera asko aldatzen dira euskalduntzeari buruzko datuak. Goierriren kasuan, Nerea Martinez Euskal Herriak Bere Eskolako taldeko kideak eta Ugaitz Garmendia Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) taldeko kideak adierazi digutenez, "Goierriin nahiz eta ikasle ia denak D ereduaren ikasten aritu, erabilera dago arazoa, batez ere herri handietan, Beasainen eta Ordizian. Jakin badakite, baina ez dakigu zein hori puntutaraino izan daitekeen euskalduntzea".

Erabilerarako kontzientziazioa lantzea da kanpaina honen beste helburuetariko bat. "Goierriin kezka handiena erabilerak sortzen du hemen inguruan. Euskal Herriko beste leku batzutan, jakina, jakiteak berak eragiten du kezka".

Eskualdeko hainbat ikastetxerekin harremanak izan dituzte. Ordiziarrek zehaztu digutenez, "eskola bakoitzak arduratu hartu du erabileraren arazoa lantzea".

Erabilerarekin batera, hizkuntzaren kalitateak ere sortzen die kezka. "Galtzen ari gara euskararen kalitatea. Hor ere badaukagu egiteko beste hausnarketa bat. Euskara maila batean jakin bai, baina erabiltzen ez badugu, azkenean hizkuntza galdu egiten da", diote Nereak eta Ugaitzek.

Etorkinak

Etorkinen errealitatea ere azpimarratu dute Nereak eta Ugaitzek. "Baliabide falta handia dago. Geroz eta

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

lan gehiago egiten da baina irakasleen borondatearen esku gelditzen da. Etorkinak ikastetxeetan banatzen dituzte, denak elkarrekin jarrita baino euskara gehiago ikasiko dutelakoan”.

Dena den, baliabide nahikorik ez dagoela diote. “Ipi figura sortu da, hainbat ordutan, euskara lantzeko. Baina gainerako ordu gehienetan Ipi hori ez dute izango alboan eta falta zaie. Geroz eta gehiago ari dira Harrera gelak sortzen”.

Etorkinen euskalduntzea beste erronka bat izan behar dela diote. “Lortu beharra daukagu, ikasle horiek Euskal Herrira etortzen direnean, eskoletan txertatu eta euskalduntzea, azken batean hemen bizi behar direlako. Beraz, etorkinek ez badute ikusten bertakoei euskarari garrantzia ematen diegula, eta erdaraz hitz egiten dugula, argi dago beraiek errazago ikasten dutela erdaraz”.

Eskolaren lana bakarrik ez

Dena den, bi ordiziarrek garbi daukate, euskararen normalizazioa beste esparru batzuetara ere zabaldu behar dela. “Eskoletan bakarrik ezin da euskalduntzea mugatu. Azken urteetan aurrerapen handiak egin dira, baina gizartean erdarak oraindik ere presentzia handia dauka. Kanpotik datorren batek ez du euskara ja-

kitea beharrezko zerbait bezala. Orduan, erronka handia daukagu hor, bai irakas-kuntzan eta bai sozialki, gizarteko eragile guztiek”.

Gizarte osoaren kontzientziaioari garrantzia handia eman diote: “guztiok izugarritzko erronka daukagu. Euskarak beharrezkoa izan behar du euskaldunak. Eskubide bezala, erabiltzen jakin behar dugu, eta horretarako ezagutu egin behar dugu. Eta ikusten da hori ez dela erabat ziurtatzen”, gaineratu dute.

Aldaketaren beharra

Beraz, Nerea Martinezk gaineratu duenez, “hizkuntza ereduen politika hau agortzen ari dela ikusten da. Ez du ematen eman beharreko fruturik. Alde batetik, erdararen ezagutza ziurtatzen delako, baina batez ere A eta B ereduek, eta orain ateratzen diren eredu berriek, erdararen ezagutza ziurtatzen dute baina euskararena oso hankamotz gelditzen da. D ereduan dauden ikasle batzuk ere hanka motz gelditzen dira. Gure planteamendua da, hezkuntza eredu hauek gairatzea eta eskola euskaldunduko duen eredu bilatzea”.

Euskal curriculumaren gaiak eta aldi berean hizkuntza ereduen gaiak kezka sortu duela diote. Ugaitz Garmendiak adierazi digunez, “Gasteizko Parlamentuan ere ikusi zen hizkuntza ereduen aldaketa beharra. Beraiek ere konturatu dira eredu hauek ez dutela gehiagorako ematen. Hori dena ikusita, kanpaina momentu onean datorrela iruditzen zaigu”.



Datuak

- ✓ “**89.666** euskal ikaslek, klase guztiak gaztelera edo frantsesez jasotzen ditu, euskarazko irakasgairik gabe (ikasleriaren %20,7)”.
- ✓ “**106.269** euskal ikaslek, klase guztiak gaztelera edo jasotzeaz gain, Euskara irakasgaia ematen dute, lau ordu astean (ikasleriaren %24,6)”.
- ✓ “**72.419** euskal ikaslek, hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu, (ikasleriaren %16,7)”.
- ✓ “**164.375** euskal ikaslek, klase guztiak euskaraz jasotzen ditu, eta Gaztelera edo Frantsesa irakasgaia ematen du astean lau orduz (ikasleriaren %38)”.
- ✓ “Ikasle hauetatik zenbatek amaituko dituzte ikasketak euskara behar bezala menperatuz? EAEko Hezkuntza Sailak 2005.ean euskara maila neurtzeko eginko froga hartu dugu oinarritzat, nahiz eta froga hori gairatzea ez duen derrigorrez suposatzen ‘ezagutza behar bezala menperatzen’ denik. Edozein kasutan ere, kontua da **A ereduko ikasle guztiek, B ereduko ikasleetatik %67ak eta D ereduko ikasleetatik %32ak ez zutela froga hori gairatzen**”.
- ✓ “**Eskolak egun ez du euskalduntzen** eta milaka dira euskara ezagutu gabe irtenko diren haur eta gazteak. Egoera honek euskararen normalizazioa guztiz trabatzen du eta gure hizkuntzaren geroa bera ere zalantzan jartzen du”.
- ✓ “Oro har Euskal Herrian bistakoa da egungo errealitateak belaunaldi berrien euskalduntzea erdiekoa ezinezkoa dela eta honen aurrean, euskalduntzearen alde eragileen artean mugimenduak gertatzen ari direla eta eztabaida maila garrantzitsua hartzen ari dela. **Osoko euskalduntzearen aldeko aldaketa baten premia** indarra hartzen ari den errealitatea dugu”.

Baliabide
nahikorik ez dago



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Agustin Vaquero pintorea



Madrilgo arte galeria batean bere pintura lanak ikusgai daude egunotan

Agustin Vaquero. Zaldibian bizidena 35 urteko lazkaotarra. Ogi-bidez, CAFen soldatzailea; zale-tasunez, pintorea. Zale-tasunez baino gehiago ere bai. Madrilgo arte galeria

batean bere pintura lanak ikusgai daude egunotan. Pintura figuratiboa egiten du Vaquerok. Oso estilo berezia. Bere estiloa. Bere bizitzan eta koadroetan barneratu gara.

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Madrilgo Ramon de la Cruz kaleko Herraiz Galerian ikusgai dago Agustin Vaquero lazkaotarraren pintura erakusketa, martxoaren 15era bitartean. 2004. urtean ere bertan egin zuen erakusketa eta emaitzarekin gustura gelditu zen.

Aurten bigarren aldia izango da Madrila zure artelanak eraman dituzula. Zer moduzko esperientzia izan zen lehenengoa?

Nahikoa ondo joan zen, ondo saldu zen. Bigarrena lehenengoa baino hobeto joatea nahiko nuke.

Nola iritsi zinen Madrila?

Zumaiaiko txapelketa batean galerista pare batek ezagutu ninduten, nire obra jarraitu zuten eta nire lana Madrila eramatea nahi izan zuten. 2004an Madrilen egon ondoren, iazko udan, Donostian jarri nuen beste erakusketa bat, Kera5 Galerian. Berria zen, baina itxi egin zen. Hemen galeriak urtean 4 edo 5 irekitzen dira baina itxi ere beste hainbeste. Donostiako erakusketa ere ondo joan zen. Ondo saldu zen. Galeriekin hasi naiz eta jarraitu beharra dago.

Madrilgo erakusketarako bereziki egindako lanak eraman dituzu?

Bai, denak berriak dira. Erakusketetan ezin dira koadroak errepikatu. Urte eta erdian egindako lana da. Beraiek saltzen duten pinturara egokitu behar da pixka bat.

Eboluziorik egon al da erakusketa batetik bestera?

Bai. Aurreko bilduma, materialikoagoa zen, enpaste gehiago, espatula gehiago


erabiltzen nuen. Marmol hautsa erabiltzen nuen pinturari lodiera emateko eta oihalean texturarekin gelditzeko. Oraingo lanek lastre gehiago daukate, rotax-a, collagea erabiltzen dut, pintura oso arina uzten dut, brotxa, marmol hautsa eta espatula edo txartela erabiltzen ditut.

Eboluzioa zergatik gauzatzen da?

Inkonformismoagatik. Ondo egonagatik, hobeto egotea nahi duzulako. Hobeto egoteko nola egin pentsatzen duzu, bestela ez atzera ez aurrera gelditzeko arriskua dago. Eboluzioa arteak bilatu beharko lukeen zerbait izan beharko litzateke. Koadro bat egin eta urteetan koadro berdina errepikatzen baduzu, beharbada gehiago salduko duzu edo saltzen jarraituko duzu. Hori bai, arriskatuta, ez saltzeko arriskua ere baduzu. Nik adibidez, Madrilgo erakusketa erdia prestatuta neukanean galeristei erakutsi nien eta erdiak baztertu egin zizkidaten, beharbada, gehiegi aldatzea nahi izan nuen eta gehiegizkoa zen aldaketa. Koadroren batean pasatu egin naiz eta abstraktora jotzen zuen.

Hurrengo eboluzioarekin abstraktora iritsiko al zara beraz?

Ez, ez. Abstraktoa joera izango da, baina denborarekin. Poliki-poliki joan behar da aldatzen. 10 urteetan egin beharreko saltoa bi urteetan egin nahi izatea ez dut uste ona denik. Joera hori izango da, abstrakziorantz. Nire pinturak figuratiboa izaten jarraituko du. Dagoena ikusten jarraituko da, ez da abstrazio gogor bat izan-



Nola deskribatuko zenuke zure pintura?

Pintura honek ez dauka zerikusirik ezerekin eta inorekin. Niri gustatzen zaidan pintura da. Han eta hemen ikusten dudana, besteak daukaten teknika... egin nahi duzuna nola garatu ikusten joaten zara. Pintura hau oso pertsonala da. Hori da bilatzen dudana lehenengo gauza, pertsonala izan dadila, ez dezala baten eta bestearen antziki eduki. Pintoreren baten zerbait eduki dezake, beste norbaitek erabiltzen dituen teknikak... baina pintura hau nirea izatea nahi dut. Adibidez, nik egiten ditudan isladak, Estatuan beste inork ez du egiten. Nik aportatzen dudana zerbait da.

Ze paisaia mota gustatzen zaizu?

Bertako gaiak. Hori bai, berdetik urruntzen saiatzen naiz. **Inguruan berde asko daukazu bada!**

Ba horregatik. Hainbeste berde ikusita, saturatuegia nago. Gorriak, grisak, urdinak... gustatzen zaizkit. Urbanoa eta maritimoa. Berdeak tristetasuna ematen du.

Pintore batean eboluzioa
inkonformismoagatik gauzatzen da.

go. Pintura, ziurrenik, planoagoa bilakatuko da, Perspektiba deformatzen saiatzen naiz. Urruti dagoena gerturatu egiten dut, indar gehiago edukitzeko. Planotasun horrek modernotasuna ematen dio.

Gustatzen zaizun teknika da edo eroslearengan pentsatutakoa?

Niri gustatzen zaidana da eta jendeari gustatzen bazaio, animatu egiten zaitu. Koadro bat margotu, norberari ikaragarri gustatu eta beste inori gustatzen ez bazaio, eta estudioan gelditzen bazaizu, urte batean 30 gelditzen badira saldu gabe eta hurrengoan beste hainbeste... zerbaitek huts egiten du. Pintatzeagatik pintatzen dut baina egiten dudana errekonozitua izan dadin, gustatua izan dadin.

Lehiaketak irabazteak bi-deak irekitzen al ditu?

Lehiaketak, loteria bezalakoak dira. Lehiaketa bat irabazten duen koadro bat, beti ez da onena izaten. Baina lehiaketek curriculuma ematen dute. Nik ez daukat Arte Ederren ikasketarik eta curriculuma era batera edo bestera bete behar dut. Arte Ederrak edukita ate gehiago irekitzen dira, ez dauka zergatik baina...

Enkarguzko lanik egiten al duzu?

Bai, baina ez zaizkit hainbeste gustatzen. Egokiagoa



iruditzen zait daukadana erakutsi eta gustatutakoa erostea. Enkargu batek ez dauka zertan pintura on bat izan beharrik. Koadroa ondo egon daiteke, enkarguarekin lortu nahi zena lortuta, baina horregatik piktorkoki ez dauka zertan ona izan behar derrigorrean.

Pintura zein egoeratan dago?

Orain 'batxea' Madrila etaartzelona iristen ari da. Hemen, urte batzuk badaramatza batxe horrek. Dena den, boladaka joaten da. Urte batean beharbada ondo salduko duzu eta hurrengoan batere ez.

“Ez nintzen animatu Arte Ederrak ikastera”

Pinturarako zaletasuna txikitatik dator kio Zaldibian bizi den lazkaotarrari. Eskola garaian irabazi zuen sariren bat. Arte Ederrak ikasketak egiteko aukera buruan ibili bazuen ere, ez zen animatu. “Pentsatu nuen bai, baina nota ona behar zen sartzeko. Ni nahiko alperra nintzen ikasketekin eta azkenean soldadura ikasi nuen”, dio Vaquerok.

Dena den, pintura ez du sekula baztertu eta han eta hemen ikasten aritu izan da. “Neure kasa ikasten hasi nintzen. Gero 18 urterekin, Patxi Epelderekin hasi nintzen. Nire lehenengo irakaslea izan zen; urtebete egin nuen berarekin. Ondoren, Javier Soto ordiziarrarekin hasi nintzen eta bi urte egin nituen. Honekin heldutasunera iritsi nintzen. Disziplina erakutsi zidan, gauzak perfektionatzen... Dezente balio izan zidan”, aitortu digu.

Sariak eta erakusketak

Lehenengo ikasketa horiek eginda, bi urte margotu egon gabe egon zen. Harrezkerotik, gelditu gabe ari da. “Geldialdiaren ondoren, lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen. Lehenengo urtean, 8 lehiaketa irabazi nituen eta hurrengoan beste 8. Gero 2004an erakusketa etorri zen...”.

Etxean ez daukat nire koadrorik, bestela beti akatsak aurkitzen arituko nintzateke.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia Inplantologia Periodontzia Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 110

“Koadro asko puskatu ditut”

Pinturatik bizi al zara?

Ez, CAFen lan egiten dut, kaldereroa naiz. Gelditzen zaidan denboran pintatu egiten dut. Bi seme-alaba baditut eta emaztearen babesa oso handia da, bestela ez nukeen honetarako aukerarik edukiko.

Pinturatik bizitzea ametsa al da?

Pinturatik bizitzea oso gogorra da. Adibidez, nahiz eta bi urterako salmenta onak edukitzea aurreikusit, zalantza horrekin bizitzea ez nuke jasango. Madrilgo erakusketarekin adibidez, azkeneko hilabeteetan estresatuta egon naiz. Bestetik, egun guztian etxean margotzen egotea ere ez dut uste onena denik. Nik hobeto margotzen dut egunean 3 orduetan, 7tan baino. Eguna beste zerbaitetan entretentzea garrantzitsua da, beti ditxosozko koadroetan pentsatzen egoten bazara ere. Egin duzuna, egin nahi duzuna, egin duzuna ondo egina dagoen... Momentuz, niri horrela ondo doakit.

Pintore bezala zein da zure ametsa?

Pintore bezala zenbat eta urrutirago iritsi, orduan eta hobeto. Zenbat eta jende gehiagok nire lana eduki, gero eta gehiago gustatu...

Hobbya edo zerbait gehiago da zuretzat pintura?

Bai, zerbait gehiago da. Egun guztia pinturan pentsatzen ari naiz. Goizeko 5etan esnatu eta koadroan pentsatzen aritzen naiz.

Koadro asko puskatu al dituzu?

Ikaragarri. Ahal diren guztiak puskatu behar dira. Anekdotak badago: Leo-



“Madrilgo erakusketarako koadroak eramateko furgoneta kargatzen ari nintzenean, alaba triste zegoen, aitaren koadroak zeramatatela-eta”.

nen bada irakasle bat, ikasle berri bat joaten den baikoitzean, koadrorik onena ekartzeko esaten diona. Eman ahala, puskatu egiten du. Beraz, proba pasatzen duenak, etorkizuna dauka. Horrela ikasten da margotzen. Pintatzen den lehen koadroa enmarkatzen duenak, ez du eboluzionatuko, ez du ikasiko behar bezala.

Estudiora joan eta margotu gabe gelditu al zara inoiz?

Ez, teknikak badaude, momentu guztiak aprobetxatzeko. Adibidez, koadro bat errematatzeke gogorik ez daukadanean, konzentrazio handiena behar den lan horretarako, fondoak egiten ditut. Hurrengoan, margotzen hasiko naiz. Egun on bat daukazunean, adibidez, bukatzeko zeuden bost koadro bukatuko dituzu... Beste egun batean beharbada, koadroari begira pasatzen duzu, zer falta zaion eta zer daukan soberan begira...

Donostiako portuaren koadroan adibidez, goiko

parteak, etxeak, ez zitzaizkidan ondo ateratzen. Ezabatu eta azkenean, koadroari buelta eman, eta buruz behera egin nuen dena. Gehiago konzentratu nintzen eta atera egin zen. Hori bai, errematatu, posizio normalean egin nuen. Konzentratzeko, kreatibitatean progresatzeko teknikak daude.

Artisautza eta artea, erosteko garestia dela esan izaten da.

Ondo egin duzu artisautza eta artea bereiztea. Normala da artea garestiagoa izatea. Ordaindu beharra dago. Nik uste dut denerako jendea dagoela. Erakusketa batera joan eta etxean koadrorik ez duen pertsona bati garestia irudituko zaio edozer gauza. Baina garestiagoa iruditu beharko litzaioke autoaren olio aldartzera joan eta 50.000 pezeta ordaindu behar izatea. Baina horretaz inork ez du ezer esaten. Koadroa garestia da baina bizitza osorako zerbait da. Pintorea gainera, seguruena, urtero balioa

hartzen joango da. Artea erosten duten zirkuloetan, urtean diru asko gastatzen da koadroetan, urtean 10-15 koadroko erosiko dituenak daude. Kapritxo bat da eta ordaintzea inporta ez zaiena. Eta jakina, erostea nahi dutenak. Nik ere artea erosi nahi dut baina ezin dut.

Zure etxerako zein koadro gustatuko litzaizuke margotzea?

Nire etxean ez dut koadrorik. Nik pintura beste era batera bizi dut. Koadro bat etxean jarriko banu beti begira egon nintzatekeen. Gorria, urdinxkagoa izan beharko zela... beste era batera egin beharko nukeela... Bueltak ematen jarraituko nukeen. Horregatik ez dut jarri koadrorik etxean. Denborarekin, zenbait pintoreren koadroak jarri nahiko nituzke.

Pintore gogokoena?

Ez dago pintore bat. Askoren zerbait gustatzen zait. Alvaro Delgado, Antonio Saura, Manolo Valdes, Jose Antonio Lopez...

Lazkaoko inauteriak 1947-49 urteetan

Lazkaomendiko koadrila 3 egunez ibiltzen zen baserri baserri; Zaldibia eta Gaintza pasa ondoren herrian aritzen ziren

Lazkaomendiko 8 lagun ibiltzen ziren inauterietan, soinujolearekin: sei dantzari, saskia eramaten zuena eta zahatoaren arduraduna. Itxurreneko Bittor Galparsorok azaldu digunez inauteri igandean hasi eta asteartean bukatu arte Zaldibian, Gaintzan eta Lazkaon ibiltzen ziren. "Guk pasa gabeko baserri ez dago hor".

Igandean Zaldibiako zati bat eta Gaintzako hainbat baserri ibiltzen ziren. Baserri bakoitzean soinua jo eta dantza egiten zuten. Batek saskia eramaten zuen eta beste batek maskuria eta zato ardoa. Maskuria umeen atzetik ibiltzeko izaten zen. Etxeetan arrautzak, txorixoa, dirua... ematen zizkieten. Bittorrek gogoan du urte batean "Gaintzatik behera goazela saskia zermana erori eta berealdiko arrautza puskatzea egin genuen. Bakarren batek a ze arrautza jana egin zuena, kaskatutakoak eta janez".

Lehen urtean Idiazabalgo Benta Txiki izan zuten soinujolea, hurrengoan soinujolea Ezkiokoa zuten eta 1949an Ordiziako Bernardo



1947an, Lazkaoko pilotalekuan. Soinujolea Idiazabalgo Benta Txiki zuten.

Alberro itsua ibili zuten. "Ilunduta Abalzisketatik Gaintza aldera bizkarrean eramane beharra izan genuen pixka batean".

Egun guztia oinez baserri baserri pasa ondoren Zaldibiako ostatuan afaltzen zuten, "Udaletxe azpian orain jubilatutako elkartea dagoen lekuan, orduan oso garrantzitsua zen taberna hura

Zaldibian. Bestela ere asko afaltzen genuen han".

Goizeko ordu biak izaten ziren etxera iristerako. Orduan ama eta arrebak arropak garbitu eta hurrengo goizerako lehortu eta plantxatuta jartzen zizkieten. "Orduan arropa aukera handirik ez zenez izaten", zuriz janzen ziren, gerriko eta txapel gorria eta lepoan

bakoitzak zetazkoa edo ahal zuen zapia jartzen zuen.

Zaldibian ezagunak ziren

Hurrengo egunean Gaintzako beste zati bat egin ondoren Zaldibian bukatu eta berriz ere ostatuan afaltzen zuten. "Gu gazte denboran beti Zaldibian ibili gara eta denak ezagutzen genituen".

● Ogitarakoak

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI



1949an, Inauterietako asteartean, Lazkaoko plazan, herriko motikoen ikusmina sortuz. Urte hartan soinu-jolea Bernardo Alberro ordiziarra izan zuten.

Arrautzak, haragia eta tortillak prestatzen zizkieten baserrietan. Bittor Zaldibian neska laguntzen asko ibiltzen zen, "ia jaiero neska laguntzera joaten nintzen baserriren batera. Negu honetan andrea eta biok Ordizian ginela musu eman zidan emakume batek, urteak ziren ikusten ez nuela. Musu hura lehen eman beharrekoa zela esan zidan, baina orduan ez zegoen ematerik. Garai haietan ere batzuek nahiko komeri egiten zuten baina gu ez ginen saiatu ere egiten. Neska laguntzera joan eta leku batean baino gehiagotan gazta eta ogia ere janda nago nesken gurasoek emanda".

Bittor bera hiru urtez ibili zen, soldadutzara joan

bitartean; 1947-49 inguruan, 17-19 urte zituela. "Gure artean bakarren bat soldadu joan beharrean izan zen eta urte hartan Lazkao-Txiki ibili zen gurekin, soldaduska pasatuta baitzegoen".

Asteartea Lazkaon

Asteartean Lazkaon ibiltzen ziren. "Goitik behera jaitsi ondoren Agerre inguruko baserriak egiten genituen". Goizekoa bakarrik izaten zen. Ondoren Karmenenen bazkaltzen zuten. "Lazkaon guk jarritako soinua izaten zen egun horretan festa egiteko".

Mojetan bezperak izaten ziren. Lazkaomendiko koadrila bazkal ondoren mahaitik altxatu eta bertara joaterako eliza beteta egoten

zen. Eliza irteerarako "udalak herriko erratzak uzten zizkigun eta haiekin zubi bat egiten genuen. Tartetik gutako bat erratzarekin lurra garbitzen aritzen zen, ondoren bertatik alkate eta zinegotziak erratzez egindako arkutik pasatzeko".

Ondoren jendearen atzetik plazaraino joaten ziren eta bertan soinuarekin festa izaten zen. Arratsaldeko festa bukatutakoan bertan afaltzen zuten.

Bittorrek aurretik ez zuen ezagutu beste inor inauterietako eskean, "argazkiren bat ikusita Albitxu-koak eta ibili zirela entzun izan nuen baina neroni ez naiz gogoratzen. Harrezkerro ere ez dut uste inor ibiliko zenik, eta ibili badira ere

Lazkaomendiko koadrilak jarritako soinua izaten zen inauterietako asteartean Lazkaon festa giroa jartzen zuen

mojetan guk sortzen genuen ikusmina ez du inork sortu. Hura zoragarria izaten zen. Joxe Mari Aranburuk behin baino gehiagotan esan dit pena dela guk egiten genuen hura galdu izana. Berriz ere egin liteke halako bat, baina, ez ginatke orduan bezala ibiliko", dio irribarrez.

Alkatearen baimena beharrezko

Haiek beste garai batzuk ziren eta eskean ibili ahal izateko Juan Begiristain alkateari baimena eskatu behar izaten zituen.

Bertsolari eta bertsozale da Bittor Galparsoro eta Inauterietan hizketan aritu ondoren bertsozalaritzaz ere luze aritu zen.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako sukaldeak



Xabier Araña idazle gaztea

B easain Idazlehiaketan, azken bi urteetan, handien mailan, prosan eta olerkian, irabazlea izan da Xabier Araña ordiziarra. 17 urte ditu eta datorren ikasturtean, Unibertsitatera jo-

ango denez, ez du Beasaingo Idazlehiaketan parte hartzeko aukerarik. Nagusiekin lehiatzen hasteko aukera izango du, oraingoz arkitektura ikasteko asmoa daukan ordiziarrek.



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA



Jauregi
TOLDOAK




INSTALATZAILE OFIZIALA



laza LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

Jakintza ikastolan matematikako azterketa bukatu berrikan hitz egin dugu Xabier Arañarekin. Segundo gutxiren bueltan, zenbakien saltsatik, hitzen saltsara pasatu da ordiziarra. Lehenengo elkarrizketa omen da GOIERRITARRA aldizkarian aterako den hau. Matematikako azterketa gainditu duen ala ez dakigu. Goierritarra aldizkariakoa, zuek erabaki.

Behartuta ala zure borondatez idazten duzu?

Garbi daukat, ez zaidala ateratzen idazten jartzea. Hori bai, jartzen naizenean, gustura aritzen naiz, baina kostatu egiten zait jartzea.

Beasaingo ipuin eta olerki horiek, orduan, zer dira, Euskara gaiko lanak?

Bai, nota igotzeko balio izaten du eta.

Beasainen, bi sari irabazita zenbat igo dizu nota?

Ez dakit, punturen bat edo. Nota igotzeko bakarrik ez dut idazten. Gustura sentitzen naiz.


Zirikatzeari behar duzu orduan.

Bai. Idatzi araziko nauen norbait behar dut. Nire denbora librean, ez dut inoiz idazten. Irakurri bai, asko irakurtzen dut.

Zer irakurtzen duzu?

Harry Potterrenak asko gustatzen zaizkit. 'Siervo de los anillos'... gehienbat fikziozkoak gustatzen zaizkit. Orain, 'Belarraren ahoak', Harkaitz Canoren liburuarekin ari naiz. Euskadi Literatur Saria irabazi duen liburua. Nire libururik gustukoenak, Kafkaren idatzitako 'Metamorfosia', eta orain dela gutxi irakurri nuen 'El caballero de la armadura oxidada'.

Irakurtzen ari zaren bi-



tartean ideiak hartzen dituzu, edo besterik gabe irakurtzen duzu?

Besterik gabe. Ideiak, beste urte batzuetan irabazitako lanetatik hartzen ditut, batez ere gauza orijinalak. Niri sortutako gauza asko ere sartzen ditut, noski.

Poesian eta prosan, bietan ondo moldatzen zara beraz.

Sorpresa izan da niretzat. Poesia, lehenengo aldiz, iaz idatzi nuen eta ondo ateratzen eta aurten berriz saiatu naiz. Ipuinak, bai, lehendik asko neuzkan idatzita, baina, poesian, iaz jarri nintzen eta saria jaso nuen, eta aurten berriz. Horrek harritu nau gehienbat.

Poesia edo prosa, zer duzu nahiago?

Irakurtzeko, narratiba. Baina idazteko garaian, ez dakit, poesia bat idazten jartzea errazagoa da. Nik oso hitz gutxirekin idazten dut, klabeak sartuz, esaldiak egiten gabe, eta errazagoa

egiten zait.

Idazketa nola lantzen duzu?

Ikastolan landutakoa bakarrik, eta irakurtzeak eman didana.

Zein estilotako gaiak aukeratu dituzu?

Beti nahiko negatiboak. Gai tradizionalak gustatzen zaizkit, denbora aurrera eta atzera eginez, aspaldiko garaiak kontatuz... Iazkoa, 1942an kokatzen zen, gerra zibilaren ondoren, Nafarroako herri batean kokatzen zen eta familia baten gertaerak kontatzen ziren, bortxatua izan zen neska baten bizitza. Familia gaia sartzea gustatzen zait, sentimendu gehiago emateko. Aurten goa, hegazkin istripu batean dena galtzen duen pertsona bati buruzkoa zen. Alde batetik hegazkin istripuan gertatutakoa kontatzen dut, eta beste alde batetik, pertsona horren gaur egungo egoera. Bi gertaerak nahasten ditut. Gaur egun, nahikoa arra-

kasta duen pintorea da. Bere koadroak salduz bizi da. Bere ama, bera jaio zenean hil zela esan zioten. Aita hegazkin istripuan hil zen eta amonarekin bizi da. Amonak gero, Alzheimerreduzikiko du. Behin, berak antolatutako erakusketa batean, emakumezko bat ikusi zuen eta bere begietan zerbait berezia ikusiko zuen eta ama etorriko zaio burura. Hasieran garrantzirik ez zion eman baina autoan zihola, erretrobisorean, emakume horren begiak ikusten ditu. Ama izan zitekeela eta, berriz buelta hartu eta emakumea bilatzen saiatzen da. Baina emakumea ez zegoen... Irakurleak erabaki beharko du bere ama zen ala ez zen.

Kontu zaharrak gustatzen zaizkizula esan duzu. Kontu horiek norbait kontakutzen dizkizu...

Aspaldiko gertaerak gustatzen zaizkit. Ni oso historia zalea ez naiz baina Gerra



	<p>KAMIXETA ESTANPAZIOA FOTOKOPIAK KOLORETAN</p> <p>© 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39 San Inazio, 5 BEASAIN</p>
--	---

Zibilaren gaia menperatzen nuen eta horretaz idaztea pentsatu nuen. Nafarroan familia daukat eta horrek ere inspiratu ninduen, Nafarroa eta Urbasa inguruak sartzea. Olaztin dauzkat aitona-amonak.

Ideiak koadernotxoan apuntatzen dituzuen horietakoa al zara?

Ez. Beharbada, mentalki egiten dut gehiago. Buruan gordetzen dut. Egiten dudana lehenengo gauza da, pentsatzea, zer transmititu nahi dudana, istorio pozgarri bat edo zoritxarreko bat. Gehienez zoritxarrekoa da, baina beno...

Errazagoa al da istorio tristeak idaztea?

Errazagoa egiten zait mina adieraztea, poza baino. Esaldi gogorak erabiltzea gustatzen zaizkit. Pertsonaien pentsamoldea, adibidez, biraoen edo hitz itsusien bidez adieraztea,

Zein estilo erabiltzen duzu?

Denetarik pixka bat. Hegazkin istripua deskribatzen dudanean, adibidez, esaldi laburrak erabiltzen ditut. Beste batzuetan, gehiago garatzea ere gustatzen zait. Adibidez, pentsamenduak adierazten ari naizenean. Hori nabarmenduko nuke, askotan esaldi motzak erabiltzea gustatzen zaidala.

Beasaingo Idazlan lehiaketan, behintzat, ezin izango zara berriz aurkeztu. Aurrera jarraituko al duzu idazten? Nork zirikaturiko zaitu?

Beasaingoaz gain lehiaketa gehiago ere badaude. Nik pentsatzen dut idazten jarraituko dudala. Jartzen naizenean gustatzen zait, baina jartzea falta zait. Ez dut ezer



prometitzen, baina...

Beasainen bertan, idazle berrientzako Igartza beka ere badago. Pentsatu al duzu proiekturik aurkeztu eta libururen bat idazteko aukeraz?

Ez. Momentuz, plazerragatik idazten dut. Ziur daukadana da, irakurtzen jarraituko dudala. Idazten jarraituko dudana, ez dakit.

Noiz irakurtzen duzu?

Gehienbat, gauetan, ohean, lo hartu aurretik.

Zein zaletasun daukazu?

Pintura, atletismoa, kirola.

Pintura gustatzen zaizula diozu. Azkeneko ipuinean, pintorea zen protagonista. Norberanetik zerbait ba al dute zure istorioek?

Onartu beharra daukat, pix-

ka bat baietz. Nire pinturako zaletasunaz eta jakintzaz aprobetxatu naiz. Margoketara joaten naiz eta lexikoa kontrolatzen dut.

Etorkizunean nola ikusten zara? Arkitekto idazlea ikusten al zara? Ala idazle arkitektoa? Ala margolaria?

Ez dakit, bere denbora librean, arte munduan ibiltzea gustatzen zaion arkitekto bat bezala. Antzekoa da, arkitektoak azkenean margotu eta marrazkia egin beharra dauka. Ez daukat idazle izateko haragoko asmorik.

Gero eta gutxiago irakurtzen dela esaten da. Idatzi ere bai. Nola animatuko zenuke jendea?

Ez dakit gehiago ala gutxia-

go irakurriko den. Baina nik nire partetik jendea animatzen dut irakurtzera eta idaztera. Ikusi zer gertatu zaidan niri! Aurretik ere Beasaingo lehiaketara aurkeztu nuen lanen bat edo beste eta ez nuen ezer ere irabazi, aipamenik ere ez. Baxilergora iritsi eta lau sari irabazi ditut.

Zer gertatu zaizu bada... inspiratuagoa zaude...

Beharbada estiloa pixka bat aldatu dudalako da. Orijinala izatea gustatzen zait eta horretan saiatu naiz. Denbora aldaketak, esaldi arraroak... erabiltzea eta funtzionatu egin du. Horregatik animatuko nuke jendea idaztera. Nire kasuan bezala, ezer espero ez izatetik, dena lortu dudalako eta gauzak ez dira horren zailak. Eta noski, idazten eta irakurtzen, gozatzen delako.

Irabazitako sariarekin zer egin duzu?

Dirua gordeta daukat. Zerbait behar badut.. Oraingoz kapritxorik ez daukat eta hor daukat gordeta.

Beasain Idazlehiaketan urte askotan sariak irabazi dituzten bi idazle behintzat, Irati eta Ekaitz Goikoetxea, handien mailan ere sariak irabaziz ari dira. Horrek animatzen al zaitu zu ere bide horretatik jarraitzera?

Ez dakit. Pentsatzen dut aurkeztuko naizela lehiaketa gehiagotara. Beste zerbait gehiago lortzen baldin badut, horrek ere motibatu egingo nau, eta beharbada zerbait gehiago pentsatu beharko dut. Baina nik us-te dut, jartzea lortzen badut behintzat, idazten jarraituko dudala.



Ordizia

‘El florido pensil’, Mikel Garmendiaren omenez

Otsailaren 24an, Antzerki Garaiaren barruan, Ttanta-ka taldearen ‘El florido pensil’ antzezlanak ikusteko aukera izango da, Ordiziako Herri Antzokian, gaueko 10,15etan. Hainbeste emanalditan antzezle izan zen Mikel Garmendia aktore zenaren omenezko saioa izango da.

Ataun

‘Erreleboa’ antzezlanak

Otsailaren 24an, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreak protagonista dituen ‘Erreleboa’ antzezlanak ikusgai izango da Herri Antzokian, gaueko 10etan.



Beasain

Arrano mus txapelketa, martxoaren 11n

Beasaingo Arrano elkarteak, XVI. mus txapelketa antolatu du martxoaren 11rako. Arratsaldeko 4,30etan, elkarteetan bertan jokatu da. Irabazlearentzat 1.000 euro eta txapelak daude zain. 4 erregetara jokatu da. Izen ematea Arrano tabernan egin behar da, arratsaldeko 3,30etan hasita. Bikoteko 25 euro ordaindu behar dira.

Beasain

IX. Igartza literatura sorkuntza beka

Idazle berrientzat, Igartza literatura-sorkuntza beka antolatu da 9. aldiz Beasaingo Udalak, CAF enpresaren eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin. Beka, 6.000 eurokoa izango da.

Deialdira, narratibako lanak (eleberrri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

Deialdian edonork parte har lezake, baina, egile berrientzat bideratua dela kontuan hartuta, bi baldintza hauek bete behar dira: Lana entregatzean 35 urte bete gabe izatea eta aurretik lan argitaraturik izatekotan, bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea. Bi baldintza horien muga, proiektuak jasotzeko unekoa (2006-06-30a) da.

Partehartzaile bakoitzak, lau aldakitan (lau kopia) eta bere benetako izena agerian jarri gabe, ondorengo agiriak aurkeztu behar ditu bere proiektuarekin batera: a) Landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki irizitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura, luzera, estiloa, etab. b) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena. c) Gutunazale itxia (ale bakarra), kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa (izanez gero), telefonoa eta nortasun-agiriaren fotokopia.

Irabazleak izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du gehienez, idazlan amaitua Beasaingo Udalarari bidaltzeko.

Proiektuak, 2006ko ekainaren 30era arte bidal litezke helbide honetara: IX. Igartza Literatura-sorkuntzako Beka. Euskara Zerbitzua. Udaletxea. Loinazko San Martin plaza. 20.200 Beasain (Gipuzkoa).



ASEPLAN S.L.
A H O L K U L A R I T Z A - E N P R E S A K


KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

IBILGAILUAK

salgai

Nissan Micra 1.2 visia salgai. 2 urte. 17.500 km. Oraindik urtebeteko garantia dauka. 620442756.

Rover 420 sdi autoa salgai. 105 zaldi. SS-BG. Gris metalizatua. 5.500 euro. 635204462.

Volkswagen Transporter furgoneta salgai. 1.9TD, 90 zaldi, SS-BF. 9.000 euro. 650399303

Mobilette campera motorra salgai. 943084179.

LOKALAK

errentan eman

Legorretan, lokala alokatzen da. 100 m². Ezin hobea biltegi edo antzekoetarako. 630708624.

salgai

Andoainen, jatetxea salgai. 90 m². Lanean hasteko prest. 943801051 - 665716722.

LURSAILA

erosi

Goierrin lursaila erosiko nuke, herritik gertu. 616698236.

ANIMALIAK

salgai

Pottoka kualifikatuak salgai, Zaldibian. 605743796.

Bi poni gazte salgai. Harra eta emea. Eskura ohituak. 943161945.

BESTELAKOAK

salgai

Eskiak, Atomic carding, salgai. 170 cm. 250 euro. 943888601. Gauean deitu.

OKi-C 3200 inpresora laserra salgai. Estrenatu gabea. 300 euro. 653721512.

14 -ko Kosei llantak salgai. Kubiartekin. Merke. 675712179.

Snowboard taula salgai. 157 cm. 100 euro. 943888601. Gauean deitu.

Eskiak salgai, normalak. 1.70 cm. 40 euro. 650017295.

Gasezko kaldera salgai (ura eta berogailua). Oso egoera onean. 650017295.

Gitarra elektrikoa, Gibson Flying V67 salgai. Beltza, kolpekari txuria, zorro orijinala. 1.000 euro. Orokorrean, egoera onean. 645713541. Martin.

4 llanta salgai, Clio 1.6. autoarenak. Fl eko kubiarta berrieekin. 650728723 - 943087767 (20:00etatik aurrera deitu).

Logela salgai. 1,35eko ohea, somierra (1,90), 2 mesanotxe, 4 kaxoi eta ispiludun tokadorea eta aulkia. Oso egoera onean. 480 euro. 20:00etatik aurrera deitu. 2 kortina eta lanpara 1 opari. 636370101.

Rossignol eskiak salgai, bas-toi eta fundarekin. Eskiak 1,75 neurrikoak. Oso gutxi erabiliak. Prezio negoziagarria. 629489914.

Gitarra elektrikoa salgai, Lag 'Roxane' markakoa; erdi mailako gitarra, oso egoera onean. 628158142.

Karabana salgai, Roller. 5 plazakoa. 609601310.

Ura berotzeko berogailua salgai, Gasarekin funtzionatzen du. 670422051.

Arkupe
 ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
 J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

biok kudeaketa
 fiskala
 kontablea
 merkatala
 laborala
 Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
 www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Goierri, 12

ikaskide
 irakaskuntza zerbitzuak
 Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120
 www.ikaskide.net

UNIBERTSITARIOAK
 ✓ Enpresaritza
 ✓ Kimika
 ✓ Farmazia
 ✓ Injinaritza
 ✓ Presentziala
 tutoritzapean

INFORMATIKA
 ✓ Mekanografia
 ✓ Ofimatika (Word)
 ✓ Datu basea (Acces)
 ✓ Talde txikiak
 tutorearekin

INGELERA
 ✓ Azterketa ofizialak
 (Cambridge)
 ✓ KET, PET, First Certificate
 ✓ Talde txikiak

Aseguru konneduria
SEGURUEN PROFESIONALAK
MUNDUATE
 Elosegi, 1- behea
 Tfnoa.: 943 88 86 20
 Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
 Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

GRAFICAS EGUZKI
 IMPRIMATEGIA
 NAFARROA ETOR, 17
 T/F 943 88 94 82

SILVIA MIRASCASAYAS
 ODONTOLOGOA
 943 88 92 87
 SAN INAZIO KALEA, 2
 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ETXEBIZITZAK

salgai

Donostian, Artzain Onaren inguruan, bizitzeko egokitutako sotoa salgai. 38 m². Erabat berritua. Aire egokitua. 650114788.

errentan eman

Nafarroan, Urederraren sorburuaren eta Urbasaren ondoan, landetxea alokatzen da. Asteburuetan, zubietan, oporretan. Handia. 948539381 - 616537765.

BASERRIAK

salgai

Beasainen, erdigunean, etxebizitza salgai. 80 m². 2 logela. Jangela-egongela handia. Oso eguzkitsua. 943883145 - 943881085.

erosi

Goierri edo Tolosa aldean baserria erosiko nuke. 616698236.

LANA

eskaerak

Zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean. 629869668.

Zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean. 616698236.

Ordiziako taberna batean, zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. 629114977.

Jantzigintza industrialera -ko langilea behar da Zaldibian. Astelehenetik ostiralera, 7,30etatik 12,30etara. Ezinbestekoa da makinaz josten jakitea. 943162230.

Zerbitzaria behar da erretegi baterako, larunbat gauetan eta jai batzuetan. 615700406.

Zerbitzaria behar da jatetxe baterako. 943882893.

Emakume heldua behar da goizez etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 692715029.

Sagardotegirako pertsona bat behar da, ondoko egun hauetan lan egiteko: astelehenetan, hilean bi larunbat gauetan eta jai batzutan. 615700408.

Udan, goizez, etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Ibilgailua beharrezkoa da. 943801088.

eskaintzak

Aurreinpresio eta grafikotako teknikoa lanerako prest dago. 678471206.

Neska. Prest nago arratsaldetan haurrak zaindu, etxeko lanak egin, eskailerak garbitu... 615009833.

Erreformatan, peoia bezala lan egiteko prest dago 35 urteko mutil euskalduna. 678471206.

Emakumezkoa, prest dago edozein lanetarako. 626695216.

Neska euskalduna prest dago kafetegian edo dendan lan egiteko. Administrari ikasketak ditut. 615731348.

Sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest dago emakumezkoa. Esperientziaduna. 664266989.

Emakumea, prest dago edozein lanetarako. 626695216.

Neska eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko eta ostalaritzan lan egiteko. Paperak arautuak. 670376201.

Neska eskaintzen da helduak zaintzeko, gauetz. Esperientziaduna. Paperak arautuak. 616889923. Gauetz deitu.

Enpresaritzan lizentziatutako neska bulegoko lanak egiteko prest dago. 610369746.

Neska gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin edo adineko pertsonak zaintzeko. 610369746.

Emakumezkoa prest dago, ontziak garbitzeko, tabernak garbitzeko, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. 630254643.

Errumaniar emakumezkoa edozein lan egiteko prest dago, Ordizian, astelehenetik ostiralera, goizeko 8etatik arratsaldetara. 687036580. Paperak arautuak.

Emakumezkoa prest dago gauetan adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. 616889923.

Emakumezkoa, ibilgailuarekin, prest dago garbiketarako, adineko pertsonak zaintzeko edo mezulari lanerako. 678781985 - 943027226.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Olagi Urte gutzian zabalik
Eguneroko menua Karta
Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierriarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

MUJIKA 19

MUJIKA LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA





La Salleko ikasleak, 1966an

Argazkia Beasaingo La Salle eskolan ateratakoa da, 1966an.

Goitik hasita lehenengo ilaran: Soto, Zurutuza, Arrieta, Gurrutxaga, Carrasco, Garcia, Lizarralde, Gorospe eta Goikoetxea.

2. ilaran: Zaldua, Bikuña, Irizar, Letamendia, Cerdan, Salsamendi, Igarzabal eta Etxezarreta.

3. ilaran: Apalategi, Olaran, Oiarbide, Hernandez, Sarriegi, Alustiza eta Aizpurua.

Beheran: Kerejeta, Carrasco, Eustakio eta Oiarbide.

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ZALBIDE

TOLARE SAGARDOTEGIA

izal

IMAZ eta CONTRERAS

ONDramuño baserria

IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19

ATAUN

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatua

Tximiniak

...



BARANDIARAN
Zeramikak

ERREF. MAK DISEINUA PROIEKTUA BAINUA HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



*Etxearen
epelean*



TXIMINIAK

- ✕ Burdin galdatuzkoak
- ✕ Gasezkoak
- ✕ Elektriakoak
*Ez dute behar ez ke
irteera, ez obrarik*
- ✕ Sukalde klasikoak

ESTALDURAK

- ✕ Harlandua
- ✕ Simulazioa
poliuretanoan
*Egurrezko habeak
Adreiluak
Arbela*



SUTAN

Tel./Faxa: 943 720 638

Mug.: 665 737 302

Mugitegi industrialdea, B bidea 6 behea
20700 URRETXU

e-posta: sutan@sutan.biz

